

2001EKO MAIATZAREN 24AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO
OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeitalaua

HILABETEA: Maiatza

URTEA: Bi mila eta bat

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Ana Isabel Asla Egialde
Patxi Plazaola Muguruza
Jon Berbel Aiestaran
Jose Antonio Guirado Tristan
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA

2001eko martxoaren 15eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- SOZIETATE INSTRUMENTALA

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeko buruari hitza eman eta honek honela dio: 2001eko martxoaren 15eko Udalbatzaren Osoko Bilkuran, babes ofizialeko etxebizitzak eraiki eta sustatzeko eta lurzorua sustatu eta kudeatzeko sozietate instrumentala eratzea erabaki zen. Horretarako pauso batzuk eman behar dira eta horiei jarraituz memoria bat aurkezten da, sozietate horren zergatiak azaltzen dituena. Denoi banatu zaizuen memoria horretan ondoren aipatzen diren proposamenak jasotzen dira, Udalbatzak onets ditzan:

“**Lehenik**. Memoria edo oroitidazki horri hasierako onespina ematea eta jendaurrean hogeita hamar eguneko epean jartzea, partikularrek eta Erakundeek nahiz Elkarrekin iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Bigarren. Jendaurreko epea igaro ondoren erreklamaziorik izaten bada, horiek ebatzi eta Proiektuari behin betiko onespina ematea.

Hirugarren. Sozietate Instrumentalaren Estatutuak onartzea.

Laugarren. Jon Jauregi Bereziartua Alkate jaunari Sozietatea eratzeko eta Erregistroan inskribatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “como portavoz del grupo municipal del PP de Beasain, en relación a la toma en consideración de la memoria para el ejercicio de actividades económicas consistentes en la promoción y construcción de viviendas de protección oficial, así como la promoción y gestión de suelo industrial por este Ayuntamiento, decir que aunque la opción de construir viviendas de protección oficial y a precio tasado, así como la de promover y gestionar suelo industrial no sean materias específicamente municipales sino del Gobierno Vasco, no es menos cierto que en muchos municipios del territorio histórico están ejerciendo esta competencia para el evidente interés social de la misma. Para el partido popular sin embargo, es importante resaltar el hecho de que esta actividad por parte del Ayuntamiento no debe interferir en ningún caso la iniciativa privada y la libre competencia, y esto lo decimos porque no cabe ninguna duda de que el Ayuntamiento utilizando una forma mercantil, entra en el mercado con mucha más fuerza que

ningún particular entre otras muchas razones por la más elemental de que el capital social que aporta no es el personal de cada concejal sino el de todos los vecinos. Por tanto como miembros de esta Corporación que representamos y defendemos los intereses generales de todos los beasaindarras, estamos especialmente obligados a ser muy escrupulosos en el respeto de la ley y entre otras cosas a buscar la fórmula jurídica y societaria que mejor compagine los intereses públicos y privados. En este sentido sólo queda manifestar que si es decisión municipal que sea una empresa mercantil, en forma de sociedad anónima o en forma de sociedad de responsabilidad limitada la escogida para ejercer la actividad económica señalada, en cualquier caso sería bueno que quedara suficientemente claro, porque aunque ambas sociedades se parecen, existen algunas diferencias entre ellas significativas, tal y como se recoge en el informe emitido por la comisión de estudio. Son diferencias por ejemplo en cuanto al capital social, que será un mínimo de 500.000 pesetas en las de responsabilidad limitada o de 10.000.000 de pesetas en las sociedades anónimas. Por lo que atañe al modo de desembolsar este capital, en lo que se refiere a la aportaciones no dinerarias, éstas han de ser valoradas por un auditor cuando se trate de sociedades anónimas. Por ello el grupo popular propone que para que no haya duda se especifique claramente en la memoria, que se va a tomar en consideración por el Pleno si la forma mercantil elegida es la de sociedad de responsabilidad limitada o se trata de una sociedad anónima, ya que cada una de ellas tiene una norma legal distinta que la regula. Finalmente consideramos que dentro del apartado de los objetivos a conseguir por la sociedad, que haya viviendas destinadas a familias numerosas, con sorteo aparte de la adjudicación de viviendas de protección oficial y de las precio tasado, estableciendo un cupo reservado a tal fin en la promoción de viviendas que se vayan a hacer.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Batzordetik landuta dator memoria hau eta onartu egingo dugu”. Jarraian estatutuak aurkezteko eta onartzeko epea zein den galdetu du.

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Memoria honi behin betiko onespena ematen zaionean aurkeztuko dira estatutuak onartzeko.”

Andoni Antxia jaunak (EH): “Pentsatuz honek duen garrantzia eta momentu guztian gai honekiko adostasuna azaldu dugunez, ontzat ematen dugu”.

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “me parece interesante lo que se ha comentado sobre el concretar si será una sociedad de responsabilidad limitada o una sociedad anónima, pero prácticamente es casi lo mismo. Cuando elaboremos los estatutos definiremos la fórmula jurídica exacta. Respecto a la competencia con la iniciativa privada, decir que una de las

razones por las que se propone la creación de una sociedad de este tipo es porque la iniciativa privada no tiene un interés especial respecto a la promoción de viviendas de protección oficial y tasadas. Creemos que no vamos a hacer competencia, al contrario, vamos a estimular esa demanda e incidir en que los promotores privados articulen fórmulas para ofrecer en el mercado este tipo de viviendas.

Se van a cumplir todos los trámites administrativos, ya que somos los primeros en exigir transparencia en todas nuestras actuaciones.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Aurkeztu den memoria edo oroitidazkiari hasierako onespina ematea eta jendaurrean hogeita hamar eguneko epean jartzea, partikularrek eta Erakundeek nahiz Elkarteek iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Bigarren. Jendaurreko epea igaro ondoren erreklamaziorik izaten bada, horiek ebatzi eta Proiektuari behin betiko onespina ematea.

Hirugarren. Sozietate Instrumentalaren Estatutuak onartzea.

Laugarren. Jon Jauregi Bereziartua Alkate jaunari Sozietatea eratzeko eta Erregistroan inskribatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea.”

3.- ORDENANTZA. Udaleko tasen arloan laguntzak emateko ordenantzaren hasierako onspen-proposamena.

Alkate jaunak Ana Asla, gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “esta ordenanza mantiene los mismos criterios que las anteriores, pero se adaptan los ratios a las nuevas pensiones.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez erabaki hau hartu da:

Lehenik. Udaleko tasen arloan laguntzak emateko ordenantzari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Espedientea 30 eguneko epean jendaurrean jartzea, erreklamazioak aurkezteko eta aurkezten ez badira, ordenantza behin betiko onartuta geldituko da.

5.- BEKAK. Garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazteentzat diru-laguntzak emateko proposamena.

Alkate jaunak Ana Asla, gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

Garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazteentzako laguntzak adjudikatzea, ondoren aipatzen diren pertsona eta gobernuz kanpoko erakundeek aurkeztutako proiektuak garatzeko:

GAZTEAK	PROIEKTUA	GKE	ORDEZKOAK
ZUBEROA JAUREGI LARRAÑAGA	San Nicolas Lempa (EL SALVADOR)	MUGEN GAINETIK	Ordezkorik ez dago
LEIRE CONTRERAS VIDAL	ASPSko partaideekin lan egiteko (EL SALVADOR)	OCSI	Ordezkorik ez dago
AITOR RUIZ ESTORNELL	PROIEKTU DESBERDINAK (NIKARAGUA)	HONEK	Ordezkorik ez dago

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da gizarte-ongizateko proposamena.

5.- GKE. Gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak adjudikatzeari buruzko proposamena.

Alkate jaunak Ana Asla, gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: "urtero bezala oso zaila izan da erabakiak hartzea. Asko aztertu ditugu proiektu guztiak, baina batzuekin nola edo hala harremanak eta konpromisoak hartuta genituenez, aurkeztutako 20 proiekturen artetik, egindako proposamena honako hau da:

"Lehenik. Finantzaketa-oinarrietan agertzen diren hautaketarako irizpideen arabera, ondorengo Gobernuz Kanpoko Erakundeei laguntza ematea, jarraian aipatzen diren diru-kopuruekin:

GKE: MISIONES DIOCESANAS (DONOSTIA). JOSE MARTINEZ.
BEASAINGO MISIOLARIA.

EGITASMOA: NOSSA S^a DAS GRAÇAS GIZARTE-ETXEA. IDAZKARITZA
IKASKETAK.

HERRIA: ANGOLA(AFRIKA).

EMANGO ZAION DIRU-KOPURUA: 1.125.000 PTA.

GKE: MUGEN GAINETIK (DONOSTIA).

EGITASMOA: "ISIS DAGMAR" EMAKUMEZKOEN ARRETARAKO ZENTROA

HERRIA: EL SALVADOR

EMANGO ZAION DIRU-KOPURUA: 1.500.000 PTA

GKE: OCSI (DONOSTIA)

EGITASMOA: URA ETA ESTOLDERIA HERRITARREN PARTAIDETZAREKIN

HERRIA: EL SALVADOR.

EMANGO ZAION DIRU-KOPURUA: 1.500.000 PTA.

GKE: HONEK (GIPUZKOA).

EGITASMOA: "LOS QUINCHOS" HAUREN BABES ETA ARRETARAKO ZENTROA

HERRIA: NIKARAGUA.

EMANGO ZAION DIRU-KOPURUA: 1.500.000 PTA.

GKE: MUNDUKO DEIAK (GIPUZKOA).

EGITASMOA: KACHCHH (GUJARAT) LURRIKARAK ERASANDAKO GUNEETAN ESKOLAURREKO HAURENTZAKO HEZKUNTZA-SUSTAPENERAKO PROIEKTUA

HERRIA: INDIA.

EMANGO ZAION DIRU-KOPURUA: 2.151.000 PTA.

GKE: TAUPADAK (GIPUZKOA).

EGITASMOA: BOLIVIAR AMAZONIAN BERTAKO ERKIDEGOEN TITULAZIOA EGITEKO (TITULU MANKOMUNATUAK).

HERRIA: BOLIVIA.

EMANGO ZAION DIRU-KOPURUA: 1.500.000 PTA.

GKE: MUGARIK GABE (BILBAO-BIZKAIA)

EGITASMOA: BERRERAIKUNTZA-ALDIAN HIRITARGOARI LAGUNTZA EL SALVADOR-EKO LURRIKAREN ONDOREN

HERRIA: EL SALVADOR

EMATEKO DIRU-KOPURUA: 1.500.000 PTA

Bigarren. Herrialdeen Garapenerako Laguntzen kontu-sailak duen kopurua, 14.276.000 pezetakoa da; kopuru horretatik, aipatutako erakundeei guztira 10.776.000 pezeta ematen zaie eta aldea, hau da, 3.500.000 pezeta, gazte bolondresentzako diru-laguntzak bultzatzeko eta larrialdietarako eta sentiberatze-programak aurrera eramateko banatuko da."

Une honetan, Julio Herreros Serna eta Jorge Juan Outeiral Fernandez batzar aretotik irten egin dira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Gu orokorrean ados gaude aurkeztu diren proiektuekin, baina gure ustez proiektuak ezin litezke adjudikatu aurrekontua onartuta ez dagoelako.”

Ana Asla andrea (EAJ/PNV-EA): “Horrela da, baina gazteen bekak aurrera eramateko orain antolatu behar ditugu, udan joatea nahi badugu.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Guretzat garrantzia du, zeren eta aurrekontuak eztabaidatze rakoan, guk, gobernuz kanpoko erakundeentzat aurrekontuaren %1a aurreikustea proposatu nahi dugu.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Formalki ez dago ondo eta ezin da aurrekontuan aurreikusita ez dagoen diru-kopuru bat adjudikatu, baina beti dago lehengo urteko aurrekontua luzatzeko aukera eta horrekin ari gara funtzionatzen. Beste eztabaida bat da, iaz %0,8 izanda, aurten %0,9 edo %1 izan behar duen.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Guk hau onartuko dugu, baina, gero aurrekontuetan gobernuz kanpoko erakundeentzat beste kopuru bat aurreikustea baldintzatuta gelditzen ez bada.”

Andoni Antxia jaunak (EH): “Kuestio formalak alde batera utzita eta beste urteetako irizpideak kontuan izanik, gu ados gaude proposatzen denarekin.”

Horren ondorioz, aho batez onartu da gizarte-ongizate batzordeak egindako proposamena, aurrekontua onartzerakoan adjudakazio-kopurua esleitzeko baldintzapean.

6.- EUSKARA

a- Beasaingo Udalaren Euskararen erabilpen-plana onartzeari buruzko proposamena.

Alkate jaunak Patxi Plazaola batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Azkeneko udalbatzaren ondoren, M^a Paz Martin andreak aurkeztu zuen 2000, 2001 eta 2002. urteetarako Beasaingo Udalaren erabilpen-plana. Arloz arlo, begiratzen da hizkuntza-gaitasuna, kanpokoekiko harremanak, langileen eta politikarien arteko harremanak eta azkenik, herrira begira hizkuntza-paisaia nola landu beharko litzatekeen. Plan hau aurrera eramateko,

Udalak euskaltegiarekin hitzarmena du eta hor azaltzen dira zein baliabide dauden eta zeintzuk diren helburuak. Erabilpen-plan hau Udalbatza Osoak onartu behar du HPStik dirulaguntzak eman ditzaten.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Orokorrean aurkeztu den planarekin ados gaude. Euskararen ekimenen alde gaude, baina beti ere zentzu positibo bat dutenean eta ez behartzen denean. Adibidez, planaren eranskinean eta zehazki 1.3.2.3. puntuan ondorengo esaten da:

“Diru-laguntzak eskatzen dituzten erakunde, elkarte, klub, entitate eta gainerako pertsona edo talde zerbitzu prestatzaileak, ondorengo hizkuntza arauak beteko dituzte:

a. Hizkuntza idatziaren aldetik, iragarkiak, txartelak, oharrak, kartelak, publizitatea, e.a. euskara hutsean edota elebietan izan beharko dute. Elebietan izanez ger, Euskararen Ordenantzak zehaztutako baldintzak beteko dituzte.

b. Hizkuntza mintzatuaren aldetik, bozgorailu, irrati, egunkari eta gisakoetatik egiten den propaganda, oharrak, publizitatea, etab. Euskara hutsez edo elebietan eginez ger, euskaraz gastelaniaz halako bi egingo da, euskarari lehentasuna emanez. Erabiltzen den musikari dagokionez, irizpide hori ere beteko da.”

Batzuetan, adibidez, orain onartu duguna, gobernu kanpoko erakundeena. Hauek, dokumentazioa guk eskatzen dugun bezala ez dute aurkezten eta gainera ez dut uste kasu hauetan oso zorrotzak izan behar garenik. Musikari buruz esaten duena ere, iruditzen zaigu guztiz tokitik kanpo dagoela. Musika, musika da eta esan beharko zatekeen musika letrarekin dagoenean bakarrik euskaraz izan beharko dela. Kasu horietan esaldiei ematen zaien tonua ez zaigu oso egokia iruditzen. Zentzu honetan eskatuko nuke horrelako komentarioak aldatzea, naiz eta orokorrean ados egon proposatzen den planarekin.”

Andoni Antxia jaunak (EH): “IV. eranskinean aipatzen denean zein azpiegitura erabiliko diren bi talde desberdin bereiztuko dira, bat talde eragilea eta bestea jarraipen-batzordea. Talde eragilean, euskara-batzordeko zinegotzi guztiak izango dira partaide, baina jarraipen-batzordean aldiz esaten da partaideak, euskara-batzordeko arduradun politikoa, udalak erabakitako beste koordinatzailea eta udaleko hizkuntza-normalkuntzarako teknikaria izango direla. Ez litzateke gaizki egongo definitzea zeintzuk izango diren koordinatzaileak. Hori argitzea eskatuko genuke. Bestalde, orokorrean plana zuzena dela iruditzen zaigu.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): "PSE-EE/PSOeko ordezkariak esan duenari buruz esan, euskararen ordenantza 1990ean onartu zela eta egia da orduko ikuspegia zerbait aldatu dela eta agian espresio batzuk ez dira egokiak. Azkeneko urteetan eman den planak erakutsi digu erakarriz, arrakasta handiagoa lortzen dela, behartuz baino. Hemen planteatzen den filosofia elkarlanekoa da. Plan honetan azaltzen diren arloak bertako langileekin hitz eginda daude eta beraiekin adostu dira eman beharreko pausoak. Hor azaltzen dira helburu batzuk eta batzuetan ez dira lortzen. Nik uste dut askotan helburuak eta tresnak nahastu egiten direla. Orain arte, kirol eta kultura elkarteekin egiten diren hitzarmenetan hizkuntza-politikako irizpideak azaltzen dira. Urtez urte eta poliki-poliki hobetzen ari gara. Nahikoa da festetako egitaraua edo publizitatea hartzea ohartzeko euskararen presentzia geroz eta handiagoa dela.

Andoniri erantzunez berriz esan, orain arte jarraipen-batzordean, euskaltegiko arduradunak, euskarako teknikariak eta euskera-batzordeko lehendakariak parte hartu dugula, baina irekita dago eta beste edozein ere joan daiteke. Baina badaezpada, planean jarriko dugu euskara-batzordeko zinegotziak ere partaide direla."

Arrate Izagirre andrea (EH): "Dena dela nik Jose Luisi, musikari buruz adibidetxo bat jarriko nioke. Patxik esan duen bezala elkarlanean egiten diren gauzak dira, baina esate baterako barraketan musika ipintzeak, hor badago baremo bat eta beraiekin tratua egiten da eta esaten zaie musika euskaraz zenbat denbora jarri behar duten eta erdaraz zenbat denbora jarri behar duten. Beraiei libre utziko bagenie oso posible izango litzateke, festak pasa eta gure herriko ume guztiak "el patio de mi casa" abesten bukatzea. Nik uste dut hori ez dela helburua izan behar. Laguntza guztia ematen zaie eta beraiek ez daukaten musika hori guk eskuratzen diegu. Uste dut hori ez dela ezer inposatzea. Beraiek kontuan izanik Euskal Herriko herri batera datozela moldatu egin behar dute eta udalak laguntza ematen badie, zerbait e xigitzeko moduan gaude."

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): "Ados gaude Patxik planteatu duen filosofiarekin eta plana onartu egingo dugu, ikusita honen atzean eginda dagoen lana eta gainera Udalak horregatik jasoko duen dirua. Musikari buruz esan, ni ez naizela musika-mota bat entzuteko denbora bat jartzearen alde, baizik eta nik uste dut egunen batean, euskaraz musika-sortzaile onak izaten bagara eta gure gazteek berez, euskarazko musika beste musika baino gehiago nahi badute, hori izango litzatekeela gure kulturaren neurria."

Arrate Izagirre andrea (EH): "Orain esan duzuna ere nahiko gogorra dela iruditzen zait, esatea hain zuzen ere, ez daukagula euskarazko musika-sortzailerik edo erakartasuna sortuko duenik eta gaur egun umeen

inguruan talde-pila bat daude erakartasuna sortzen dutenak, baina zoritxarrez etortzen diren horiek, horien musika ez dute ekartzen eta guk eman behar diegu, zeren eta gure umeak musika hori entzunez sentitzen dira gustora.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Arrate ez dut sartu behar eztabaida sakonean, baina ez nago ados planteatzen duzunarekin.”

Arrate Izagirre andreak (EH): “Ni ere ez”.

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Betiko eztabaidan sartu gara, “berez eta landu”. Bi horiek txertatu egin beharko dira.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da Beasaingo Udalaren Euskararen erabilpen-plana 2001. eta 2002. Urteetarako, aipatu den aldaketarekin, hau da, jarraipen-batzordean euskara-batzordeko zinegotziak ere partaide izatea.

b- Musika-eskolako langile bat euskarazko ikastaroetara joateko proposamena.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola euskara- batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Euskararen erabilpen-planean puntu bat azaltzen da, gaitasunarena, hain zuzen ere. Musika-eskolan gaitasun hori lortzeko irakasle falta dira. Udalak onartzen badu ikastaro batzuek jasoko dituzte eta IVApek diru laguntza ematen du. Nahiz eta aurtengo urteko aurrekontua eta plantila onartuta ez eduki, eskatzen digute epe barruan esateko zeintzuk izango lirakeen 2001-2002 urteetan parte hartuko luketen irakasleak. Hor azaltzen dira, Xabier Zelaia eta Joan Tapia. Orain zera proposatzen da:

- Xabier Zelaia Ezenarro jaunak, Musika Eskolako irakasleak, 2001eko urritik 2002ko urtarrilera, biak barne, ematen duen mailaren arabera dagozkion euskara-ikasketak egitea.

- Joan Tapia Arzallus jauna, Musika Eskolako trikitixa-irakasalea ere, Musika Eskolak ikasketak egiteko orain proposatua du baina postu hori Musika Eskolako plantilan ofizialki sartu gabe dagoelako, 2001. urteko plantilan sartu eta Udalak plantila onartu arte ez dago IVApek lagunduta Euskara-ikasketak egiteko proposatzerik. Horregatik ez da proosatzen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“2001eko maiatzaren 24an Udalbatza Osoak egindako ohiko bileran aho batez onartu zuen, Musika Eskolako irakslea den XABIER ZELAIA EZENARRO jaunak, 2001eko urritik 2002ko urtarrilera, biak barne, ematen duen maialaren arabera dagozkion euskara-ikasketak egitea.”

7.- DOHAINTZA ONARTZEA. Igartza jauregirako armario baten dohaintza onartzea.

Alkate jaunak, Jesus Mari Etxeberria jaunak egindako eskaintzaren berri eman du, hau da, Beasaingo Igartzako jauregian aspaldian egon zen armario baten dohaintza Beasaingo Udalari egiten dio, jauregian bertan erakutsi ahal izateko.

Alkate jaunak proposatu du armario horren dohaintza onartzea, baina kontuan izanda, zaharra denez, birgaitu egin behar dela eta horrek kostua izango duela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez erabaki da Jesus Mari Etxeberria jaunak Igartza jauregirako egindako armarioaren dohaintza onartzea.

8.- GOIEKI. 2000. urteko balantzea eta galera eta irabazien kontuak onartzeko proposamena.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Dakizuen ez sozietateetan derrigorrezkoa da auditoria egitea eta balantzea eta galera eta irabazien kontuak onartzea eta horien titular bakarrak udalok garelako jakinda, nahiz eta Goiekiko kontseiluan alderdi politiko guztiek onartuak izan, formalki udalbatzek onartu behar dituzte gero Goiekiko batzar orokorrak onartzeko. Dokumentazioan azaltzen da aktiboa pasiboa baino handiagoa izan dela, baina esan beharra dago halaber balantzea negatiboa izan dela. Hori estaltzeko udalek egin behar duten ekarpena osoko Bilkurara ekarriko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez erabaki hau hartu da: “GOIEKIKO 2000. ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabazi eta Galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokiona onartzea”.

9.- MOZIOAK:

a- EHk aurkeztutako Senideak-Gureak-en mozioa

Alkate jaunak, EHko ordezkaria den Andoni Antxia jaunari hitza eman dio eta honek honela dio: "Senideak-Gureak-ekoek lehenengo afektatuak berak direnez, mozioa beraiek irakurtzea eskatzen dugu."

Alkate jaunak Senideak-Gureak-ekoei aukera ematen die mozioa aurkezteko.

Senideak-Gureak-eko ordezkari batek ondorengo mozioa irakurri du:

"SENIDEAK-GUREAK Elkarteak (Euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen senitartekoon Elkarteak) eta herri honetako Taldeak idazki honen bitartez ondorengo MOZIO hau aurkezten dute Beasaingo Udal Txit Gorenak datozen egunetan burutuko duen Udalbatzarrean onartua izan dadin:

MOZIO HONEN ARRAZOA:

SENIDEAK-GUREAK Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoak kezkatuta, bere horretan iraun ez ezik, areagotu ere egin dela ikusita, euskal errepresaliatu politikoen senitartekoen izaera eta konpromezua abiapuntu izanik, bitarteko demokratiko, erreal eta eraginkorrak lortzeko deia egiten dugu, Irlandan gertatu den legez. Hauek baitira Euskal Herriko eta Irlandako gatazka historikoak behin betiko konpontzeko giltzarri nagusia.

Giltzarria bilatzeko orduan ezinbestekoak dira hausnarketa eta elkarrizketa. Hausnarketa gatazkaren iturriak zein ezaugarriak ezagutzeko, hau da, nahitaezko aurrepausa balizkio konponbideak proposatzeko. Elkarrizketa estrategia demokratiko amankomuna adosteko.

Zentzu horretan, Senideak-Gureak elkarteak pozik dago elkarrizketetan oinarritutako esperientzi garrantzitsuen bultzatzaile izateaz gain, parte aktiboa hartu duelako: Maroño, Altsasu, Ibaeta, Lizarra, Batera... horren lekuko dira.

Beraz, jakin badakigu gatazketan inork ez duela arrazoi osoa, baizik eta denok dugula arrazoiaren parte bat. Hau dela eta, ezinbestekoa da arazoaren analisi objektiboaren burutzea irtenbidea errezago bilatzeko. Hau hala izanik, interesgarria iruditzen zaigu aipatzea, besteak beste:

Euskal Herriak egun bizi duen gatazka sakonki errotuta dago historian. Gatazka, bi norabideetan zabaldu da. Alde batetik Euskal Herriko instituzio eta bizimoldearen defentsan, nortasun propioaren bilakaera iraunkorra, zeinek Madril eta Pariseko gobernuen interesekin talka egiten zuten. Eta beste aldetik,

Euskal Herriko populuan emandako zatiketa. Interes eta talkaren ondorioek sortzen zituzten aukera desberdinak bere isla zuen orduko Euskal Herriko biztanlegoaren artean. Batak zein besteak, era, dikotomia eta intentsitate desberdina hartu dutelarik mendeetan zehar. Baina beti Euskal Herriko egitura sozial, ekonomiko eta politikoak ederki astinduz.

Gatazka gehienek bortizkeri adierazpena izan dute, bai erasotzaileen eta baita erasotuen aldetik ere. Elkarrizketa eta itunerako aukera ez da izan, gerra dinamika (garaipen edota galera) soilik. Ezaugarri hau gobernu espaniarrek zein frantsetsek eta haue n armadek mantendutako jarrerekin estuki lotuta dago. Itxasoz bestaldeko kolonien edota Argeliaren kasuak adibide gardenak dira.

Egoera honek ondorio larriak utzi ditu, Euskal Herrian denok ezagutzen eta pairatzen ditugunak: hilak, desagertuak, iheslariak, atxilotuak, presoak, torturatuak, erasotuak.... Errealitate mingarriak eta orobatekoak.

Honengatik, honengatik guztiagatik, bi ondorio ateratzen ditugu euskal errepresaliatu politikoen senitartekook:

- Kotsentsu politiko berri baten beharra, non aukera guztiak posibleak izango diren, non aukera guztien parte hartzea posible izango den, non Madril eta Parisek Euskal Herriko biztanlegoaren erabakiak onartuko dituzten. Hau da, kotsentsu bat non gure etorkizuna askatasunez erabakitzeko aukera izango dugun. Honen ukapena baita atzo eta egun bizi dugun gatazkaren eragile nagusia.
- Historian zehar Espainako eta Frantziako gobernuek erabilitako neurri errepresiboek, atxilotetak, tortura, heriotz-zigorak, hilketak, dasagerketak, espetxe-zigorak, exilioa, etab., alferrikakoak izan dira eta dira gatazkari amaiera emateko. Honen gain, errepresaliatuei zuzendutako irain, tratu txar eta laidoek ez dute ezertan laguntzen, ezta presoak beren ingurunetik urrutiratzeak ere.

Aurrekoa adierazi ondoren, Senideak-Gureak elkarrekin, eta gatazka konpontzeko bide iraunkorrak sortzeko ahaleginetan zintzoki diharduen edozein erakundek, ezinbestean onartu beharra daukagu neurri errepresiboek ez digutela laguntzen gatazkari amaiera aurkitzen, gatazka areagotu eta konfrontazio-jarrerak zilegiztatu besterik ez baitituzte egiten. Izan ere, urterik urte neurriok behin eta berriro erabili izan badira ere, alferrikakoak izan dira beti, gatazkak berak eta gatazkak berekin dakartzan ondorio mingarriak ere bere horretan jarraitzen baitute. Gatazkaren konponbidea aurkitzeko orduan,

ondorioek ez dute inolako baldintzarik jarri behar. Aldiz, gure ustez, egoera larriak konponketaren bultzatzaileak izan beharko lirateke.

Honengatik guztiarengatik, SENIDEAK-GUREAK elkarte oso kezkatua dago egun ematen ari diren hainbat fenomenoaren aurrean eta ASKI DELA adierazi nahi dugu:

- Aski dela gatazka honetako gertakizun mingarrien aurrean maltzurkeriaz jokatzeaz. Halako jarreraren helburu bakarra gatazka eragiten duten kasuak ezkutuan gordetzea eta gatazka luzatzea da, eta gatazkari konponbidea emateko bitartekoak eratzea eragozten dute.
- Aski dela gatazkan parte hartzen duen alde bat kriminalizatzeaz. Elkarri irainka ibiltzeak ez du ezertan laguntzen konponbidea bilatzeko garaian, horrek konfrontazioa areagotu besterik ez du egiten.
- Aski dela alde bakarreko biktimismo errazaz, eta biktimismo hori konfrontazio-bideak zilegiztatzeko erabiltzeaz, gatazka honetan denok baikara biktima.
- Aski dela sufrimendua eta oinazea erabiltzeaz, gehien sufritzen dugunok baikara egoera hau konpontzeko irrika handiena dugunak, baina benetako konponbidea eraginkor, demokratiko eta iraunkorra lortuz.
- Aski dela epelkeriaz, hipokresiaz, konpromisorik ezaz, hitz-jario errazez, bakar batzuen interesez, eta hauek guztiak denontzat hain mingarria den egoeraren konponbidearen aurretik jartzeaz.
- Aski dela euskal errepresaliatu politikoei eta beren senitartekoei txantajea egiteaz eta haiek politikoki erabiltzeaz.
- Aski dela giza eskubideez eta bizi-eskubideaz hitz egiten dugunean arinkeriaz eta arbitrariotasunez jokatzeari, urratutako eskubide indibidual zein kolektiboek mazin egiteaz, eskubide horiek nork bere interesen onerako erabiltzeaz, eta eskubideok unean uneko interesen arabera ukatu ala onartzeaz.
- Aski dela BAKE hitzaren erabilera egiteaz, hitz horren benetako edukia ezabatu eta konfrontazioa sortzeko erabiltzen baita, bizi dugun gatazka honetan dauden indarkeri adierazpide guztiak aintzakotzat hartu gabe.

Senideak-Gureak, euskal errepresaliatu politikoen senitartekoen elkarte garen aldetik, dei egiten diegu arlo sozial, politiko eta instituzionalean diharduten eragileei, beren interes partikularrak albo batera utzi eta orain arte ez bezalako proposamen erreal eta ausartak eginez, gure herriak bizi duen sufrimendua eta oinazea gainditzeko esparrua sortu eta sendo dezaten.

Zentzu honetan eta herritar gehienek babesa jaso dugulako, Udaltza honi ondoko aldarrikapen hauekin bat egin dezan eskatzen diogu:

BERE ONARPENERAKO PROPOSAMEN ZEHATZA:

1. Euskal Herrian bizi dugun gatazka, izaera politikoa duen Gatazka dela aitortzen dugu.
2. Arazo politioen soluzioa, soilik politikoa izan daitekenez, Gatazka areagotu eta tenkatzeko baino balio ez duten neurri errepresibo guztiak amaitzea exigitzen dugu.
3. Gatazka politikoaren ondorioz espetxean, exilioan edota deportazioan aurkitzen diren gizon eta emakumeak, Estatus Politikoa zor zaien preso, exiliatu eta deportatu politikoak direla diogu.
4. Euskal preso, iheslari eta deportatuei dagozkien oinarrizko eskubideak, zein Eskubide Politikoak, aintzakotzat hartu eta errespetatuak izan daitezela aldarrikatzen dugu.
5. Euskal Preso Politiko guztiak berehala Euskal Herriratu eta euskaldun orok Euskal Herrian libre bizitzeko duen eskubidea errespetatu dadila exigitzen dugu.
6. Gatazkaren konponbide politikoa, demokratikoa eta nazionala gauzatzeko, elkarrizketa politikoa eta Euskal Herritar guztiok libreki geure etorkizuna erabaki ahal izateko Eskubidea aldarrikatzen ditugu, zeinen muga bakarra, euskaldunok adierazitako borondate librea izango den.
7. Horrela, bazterketarik gabe, aukera politiko oro eta euskal eragile politiko eta sozial guztiak aintzakotzat hartzea ezinbestekoa dela diogu, egungo egoerari elkarrizketan oinarrituriko irtenbide demokratikoa eman ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Guk ez dugu onartuko mozio hau. Gaur goizean hil duten pertsonaren gorputza bero egonda, nahiko zaila egiten zait hemen honelako mozio bat eztabaidatu beharra izatea. Mozioan ez da behin ere ETaren izena azaltzen. Hitz egiten da errepresioari buruz, baina baita ere aipatzen zenuten biktimismoarena. Gertatzen dena da, aspaldiko urteotan hildakoak beti alde batekoak bakarrik direla. Nik ulertzen dut senitartekoak egoera latzak bizitzen ari zaretela, baina gaur egungo bizitzan nik uste dut muga guztiak gainditu direla eta erabat ulertezina egiten zait nolabait ETAkideen helburua izatea beste pertsona batzuei bizitza kentzea. Hemen

gaudenon batzuei aspalditik ahaleginak egiten ari dira bizitza kentzeko. Orain dela astebete hauteskundeak izan ditugu eta inoiz baino partaidetza handiagoarekin, herriak bere hitza eman zuen eta emaitzak hor daude. Beraz, emaitzen ondoren egin dezagun politika, baina hauteskundeak pasa ondoren, berehala, ETAkoak Gorka Landaburu jaunari bizitza kentzen saiatu ziren. Ondoren, unibertsitatean lanean ari zen baten aurka beste hainbeste egin zuten eta zorionez ez zuten lortu bizitza kentzea. Gure hainbat lagun eta kideei bizitza izorratzen saiatzen dira. Charli Prieto, Arabako Batzar Nagusietako bozeramailearen etxe aurrean lehergailua jarri zuten eta zorionez inor ez zuen harrapatu. Gaur goizean berriz, zoritxarrez, Diario Vascoko langile bati zazpi tiro eman dizkiote eta bizitza kendu diote. Historia begiratu dezakegu, filosofia, hitzak etab. erabil ditzakegu, baina nik ez dut ulertzen pertsona batzuen dedikazioa beste batzuei bizia kentzeko. Gaur Euskal Herrian hori egiten ari den erakunde bakarra ETA da. Momentu honetan kartzeletan daudenak, ez daude guk ETAn sartzeko eskatu diegulako. Beraiek erabaki dute hor sartzea eta beste pertsona batzuei bizia kentzea. Nik ez dut onartuko preso daudenei giza eskubideak zapaltzea, baina gu ez gara joko honetan sartuko, hau da, egun batean pertsona bat hil eta hurrengo egunean gatazkaz hitz egin. Herri honek egin dezakeen gauza bakarra, ETA deuseztateko ahalegin guztiak egitea da. Ez dago beste irtenbiderik. Guk ez dugu mozio hau onartuko eta ez antzekorik ere, ETArri gelditzeko eskatzen ez bazaio .”

Andoni Antxia jaunak (EH): “Esan beharreko dena, mozioan esaten da, baina betiko gauzei bueltak ematen ari garenez, gure aldetik ere pare bat gauza aipatu nahi ditugu, PSOEko ordezkariari erantzuteko. Egindako diskurtsoarekin ikusten da, zuek ez zauedetela prest inolako mugimendurik egiteko eta zuek bai erraz edukiko zenuketela zuen Madrileko nagusei esatea, har ditzagun orain dela hogeit, hogeita bost urteko planteamenduak. Betiko planteamendua ekartzen da, gezurkeria eta maltzurkeria osoz. Nori okurritzen zaio esatea, garai batean Arias Navarrok esango zukeen bezala, ETAREN helburu bakarra pertsonak hiltzea dela?. Horrek ez dio inolaz ere bere buruari eusten eta denborak esango du historiak zer dioen. Aurreko pleno batean esan genuen bezala, joan Palestinara eta galdetu Ariel Sharoni zer iruditzen zaion palestinarren jarrera eta zuek hainbeste eta bero-bero defendatzen dituzuen palestinar horiek. Hemen gauza asko gertatzen dira eta beti alde batekoak gara gaizkileak. Hemen ETAK hil dituenetatik kanpo, beste batzuek ere izan dira, baina zuentzat denborak gainditu dituzenez ezer ez duzue esaten. Euskal Herrian zuk aipatu duzun “cuota de sangre” hori aspalditik jasan izan dugu, la “Gran España” osatu zenetik hain zuzen ere. Historikoki ordaintzen ari gara zuk esandako “cuota de sangre” hori. Guk nahi dugun bakarra zera da, zuek gure etxea nahi dugun bezala antolatzen uztea. Zuen plantemandu demokratikoa gauza batean datza: eska ezazue nahi duzuen, baina azken finean gure etxean bizitzea derrigortuta zaudete. Eta gu ez gaude prest zuen etxean

bizitzeko, utzi gure etxean bizi izaten. Utzi Euskal Herriari hitz egiten eta jendeari erabakiak hartzen. Ondorioa ETArekin desagerpena izango da.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Mozio honen aurrean lehenik esan, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak berresten dutela 1998an Udalbatza honek onartutako mozioa, euskal preso, exiliatu eta deportatuen eskubideei dagokienez. Behin baino gehiagotan salatu ditugu eskubide horien urraketak eta baita eskatu ere egin dugu errespetatuak izateko. Hori mantentzeko dugu. Hori alde batetik eta beste aldetik, aitortzen dugu gatazka politikoa badagoela eta gatazka politikoa hori gainditzeko garaia dela, baina aitortzen dugu baita ere, zuen aurkezpenean alde batera bakarrik begiratzen duzuela. Hemen aipatzen dituzue, Madril eta Paris, baina beste alde bat, momentu honetan kalte handia egiten ari dena gatazka hau konpontzeko, ETA da. Osagarria falta da mozio honetan ETARI esateko utzi hiltzeari. Guk hori eskatzen dugu. Azkeneko hauteskundeetan hiru hitz erabili ditugu: bai bizitzari, giza eskubideei” eta hori urratzen ari da ETA. Hemen gure aurrean dauden lagun batzuk sufritzen ari dira bere giza eskubideen murrizketa, bai zuen familiarrekoak eta baita mahai honetan dauden beste batzuek ere, zeren bizitza normalik ezin dute egin.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorngo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EH)
Aurkako botoak: 9 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aurkako botoak aldekoak baino gehiago direnez, mozioa ez da onartu.

b- EHK aurkeztutako mozioa, gizarte-zerbitzuetako eskumenean banaketa egiten duen Foru Dekretuaz.

Alkate jaunak Andoni Antxia jaunari hitza eman eta honek mozioa irakurri du:

“GIZARTE-ZERBITZUETAKO ESKUMENEN BANAKETA EGINEZ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ONARTUTAKO DEKRETUA

SARRERA:

Gizarte Zerbitzuak aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzaren eta Gipuzkoako Udalen artean sinatutako hitzarmenaren balioa 2000ko abenduaren 31n amaitu zen. 2001eko urtarrilaren 30ean

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuetako eskumenen banaketa zehazten duen Dekretua onartu zuen. Dekretu horretan egiten den eskumen-banaketarekin sartu gabe, izan ere oinarrizko programak eta komunitarioak, hala nola hauen egitura uda-eskumena izatea eta programa espezializatuak eta hauen egitura Foru Aldundiaren eskumena izatea ez da kuestionatzen, aitzitik, kuestionatzen dena zera da: programa hauen finantzaketa-era, dauden beharrak eta horiei emango zaizkien erantzunak, orain arte sortutako eta aurrerantzean sor litezkeen egituren mantenimendua eta batik bat herri ezberdinetan dauden errealitate guztiz ezberdinei emango zaien erantzuna.

Bestalde, arestian aipaturiko hitzarmena bukatu ondoren, Diputazioak Udalei ez die inolako azalpenik eman Udaletatik aurrera eramaten diren Gizarte Zerbitzuak gauzatzeko erari buruz. Honek, herrietan zerbitzuak eskaintzeko orduan nahasketa suposatu du. Azkenean, martxoaren erdi aldera Diputazioak bidalitako informazio-eskaera batzuk jaso dira, non Udalei datu batzuk eskatzeaz gain, zerbitzu zehatz bati buruz Diputazioaren baimenaren beharra adierazten den. Horrek gaia argitu beharrean, kasu askotan, lehen esandako nahasketa hori areagotu egin du.

Goian adierazi dugun guztiagatik, Beasaingo Euskal Herritarrok taldeak Udalaren Osoko Bilkurari ondorengo mozio hau aurkezten dio eztabaidatua eta onartua izan dadin:

MOZIOA

1.- Prozesu honetan eman den Udal Autonomiarik eza salatu nahi dugu. Foru Aldundiak urtarrilaren 30eko 4/2001 Foru Dekretuaren bidez eginiko Gizarte Zerbitzuen eskumen-banaketa Udalekin kontatu gabe egin baitu, nahiz eta Udalen gain eskumen ugari geratzen diren. Horrela, Udalek aztertzeko, proposatzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeko daukaten eskubidea zapalduz eta eskubide hau bereganatuz.

2.- Udal guztiek errealitate berdina ez daukatenez, ez finantziazioari dagokionez ezta ere beharrei eta eskaerei dagokienez, Gipuzkoako herrietako errealitate ezberdinei erantzun egokia bilatzeko bitartekoak jartzea eskatzen diogu Foru Aldundiari.

3.- Foru Aldundiari, Udalek lehen aipaturiko Dekretuan ezartzen zaizkien eskumenak aurrera eramanez ahal izateko finantziaziorako Foru-fondo bat eratzea eskatzen zaio, horrela Gipuzkoako herritarren eskubideei dagokienez eman daitezken ezberdintasunak erauzi eta lehen eta bigarren mailako herritarrak egotea ekidin dadin.

4.- Foru Aldundiaren eta Udal honen artean, eremu teknikoan eta politikoan, kanalizaziorako, komunikaziorako, solaserako eta adostasunerako sei hilabeteko aldizkakotasuna izango lukeen egitura iraunkor bat sortzea eskatzen dugu. Egitura horren xedea herri nahiz lurralde-mailan jarduera-lerro koherenteak diseinatzea izango da.

5.- Mozio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Guk ez dugu mozioa onartuko. Hemen esaten da Udalei ez zaiela batere kontsultatu Dekretu hau aurrera eramateko, baina Dekretu hau bultzatzeko EUDELen bilerak egin ziren eta kontsentsuak bilatu ziren eta hor udal asko ordezkaturik daude. Dena dela guk ere baditugu zalantza batzuk eta ez zaigu gustatzen Foru Aldundiaren aldetik gauza batzuk nola egiten ari diren.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Zuek planteatzen duzuen mozioan nagusiki bi gauza azpimarratzen dituzue. Alde batetik esaten duzue, prozesu motza izan dela eta Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak inposatutako edo onartutako erregulazioa dela. Esaten duzue udal-autonomia murriztuta gelditu dela, baina horri buruz esan behar da dekretu horiek akordio baten ondorio izan direla. Akordio horretan EUDELeke parte hartu du eta EUDELeke biztanlegoaren %98a ordezkaturik du. Akordio-marko bat ere badago, baina oraindik garatzeko dago. Horretarako sortu dira, talde tekniko eta politikoak eta aztertzen ari dira dekretu horren aplikazio zehatza nola egingo den. Bi urte hauetan udalok inolako desorekarik ez sufritzeko, bostehun milioiko fondo ekonomikoa sortu da trantsizio hori eramangarria izan dadin. Bestalde, prozesua ez da motza izan, bost hilabete baino gehiago iraun baitu. EUDELeke Gipuzkoako Lurralde-sekzioak, alkateoi, zinegotzoi eta teknikarioi prozesua azaldu digute. Dekretuak ez ditu kompetentzi berriak aurreikusten, baizik eta finantziarioa nola egingo den argitzen du. Orain arte denen arteko eta borondatezko elkarlana egon da. Herriak, zerbitzu desberdinak ematen ari ziren, nahiz eta diru-kopuru berdina jaso. Beraz, guk uste dugu zuek planteatzen dituzuen proposamenak legez kanpo daudela eta horren ondorioz aurkako botoa emango dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta emaitza hau lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EH)
Aurkako botoak: 9 (EAJ/PNV-EA)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz eta aurkako botoak aldekoak baino handiagoak izan direnez, mozioa ez da onartu.

c- PSE-EE/PSOEk aurkeztutako mozioa.

Alkate jaunak, Jose Luis Elorza PSE-EE/PSOeko ordezkariari hitza eman eta honek honela dio: “Nik kasu honetan mozioa ez dut irakurri behar, mozioa denok daukazu eta. Goitik beheraino ez dut irakurri behar, gehiegi dela iruditzen zaidalako. Bakar-bakarrik mozioaren lau proposamenak aurkeztuko ditut:

“LEHENA. Beasaingo Udalak, EZEZKO borobila ematen dio ETARI, sendotasunez, argi eta agarbi eta xehetasunik gabe.

BIGARRENA. Herri-eraikin guztietan “NO A ETA-ETA EZ” pankarta jar dadila eskatzen dugu. (Jose Luis jaunak: badakit beste momentu batzuetan udaletxean ez dela kartelik jarri. Gure ustez iritsi da momentua, diferentzia politikoak alde batera utzita, ETA den arazoari udalak ausardia eta lan didaktikoaren bidez aurre egiteko).

HIRUGARRENA. Esaldi hori agiri ofizial guztietan itsas dadila salbuespenik gabe.

LAUGARRENA. Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzara eta Foru Aldundietara ere helaraz dadila, Erakunde horiek partaidetza duten enpresa guztietan ere esaldi hori ager dadin.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Andoni Antxia jaunak (EH): “Askotan aipatzen dugun bezala, hemen lehenengo forma-kontua dago eta gero fondokoa. Forma-kontuari dagokionez esan, mugak jartzen ez badira honelako gauzak gertatzen direla, hau da, mozioa erderaz bakarrik sartzea, izan ere aurkeztu den euskarazko testua udaletxean itzultitakoa da. Edukiari buruz, proposamena alternatiboa egiten dugu, hau da, era berean udaletxeko paretetan pankarta bat azaltzea zera esaten duena, “ez indar zapaltzaileei; goardia zibilak, polizia nazionala eta militarrek alde hemendik, torturarik ez, Euskal Herriko eskubideak errespetatzea, etab.” Horren ondorio bezala, denok ados jarriko ginateke eta orduan bai jarriko genuke NO A ETA-ETA EZ. Nahiz eta helburuekin bat etorri, guretzat arazoa ez da hori. Guk aurka bozkatuko dugu.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Pankartak jartzeari guk aspaldi danik esan genion ezetz. Uste dugu ez dela didaktikoa eta gainera ezer ez duela agertzen. Udal honek garbi esan du ETA EZ. Prest gaude osotasunean

hartuta proposamen didaktikoak egiteko. Hori ez da lortzen pankartak jarrita. Mozio honi ezezkoa emango diogu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (PSE-EE/PSOE)
Aurkako botoak: 10 (PNV/EAJ-EA, EH)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, ez da onartu PSE-EE/PSOEk aurkeztutako mozioa.

PREMIAZKO PUNTUA

Alkate jaunak esan du eskaera eta galderetara pasatu aurretik, premiazko puntu bat sartu nahi duela, hain zuzen ere Donostian izandako hilketari buruzko mozio bat.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da aipatutako mozioa tratatzea.

Jarraian, Alkate jaunak mozioa irakurri du:

“Gaur goizean, Donostian, "El Diario Vasco" egunkariko finantza-zuzendaria den Santiago Oleaga Elejabarrietaren aurka izandako atentatuaren aurrean, Udalbatza honi ondorengo adierazpena eztabaidatzea eta onartzea proposatzen diogu:

1.- Santiago Oleaga Elejabarrieta jaunaren hilketa dela-eta, gure atsekabea eta gaitzespen irmoa adierazi nahi genituzke.

2.- Une zail hauetan zenduaren senitarteko eta lagunei gure laguntza sutsuaren testigantza eta hurbiltasuna; eta "El Diario Vasco"ko bere lankideei gure erabateko elkertasunaren adierazpena helarazi nahi genizkieke.

3.- Adierazpen-askatasunaren defentsa eraginkorra geure egiten dugu, zeina ETAk totalitarismo, hondamendi eta zitalkeria moralera garamatzen proiektu zentzugabetik urruntzen diren guztiak suntsituz, ezabatu nahi duen. Bizia, gizakion duintasun eta askatasun-abiapuntutzat hartuta, ETArri euskaldunon borondateari men egin diezaion eta erakunde legitimoak onar ditzan exigitzen diogu; behin betiko bake eta askatasunezko etorkizunari aurre egin ahal izateko.

4.- Beasaingo herritar guztiei dei egiten diegu horrelako ekintzekiko gaitzespena argi eta garbi adieraz dezaten, horretarako antola daitezkeen kontzentrazio guztietan parte hartuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Es tan evidente lo que aparece en la moción, que no vamos a hacer ningún comentario más: Por supuesto que lo apoyamos.”

Andoni Antxia jaunak (EH): “Guk ez dugu onartu behar. Lehenengo mozioan azaldutako arrazoietaz baliatzen gara horretarako.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 4 (EH)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, mozioa onartu egin da.

10- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ondorengoak aurkeztu dira:

SOKA-DANTZA

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Guk talde sozialista bezala aurrean erabaki dugu soka-dantzaren parte ez hartzea. Gainera Alkateari eskatzen diogu gure ordean dantzari ez jartzeko. Iaz jada, bi eginkizun gertatu ziren, bat batere gustatu ez zitzaiguna eta bigarrena zoritxarrez gaur gertatu denaren antzekoa gertatu zena. Lehenengoa ondorengoa izan zen: soka-dantzara hemendik irteterakoan, adineko soka egiten da. Soka hori Arrate EHko zinegotziak nolabait apurtu egin zuen Julioren ondoan ez tokatzeko. Gu berandu konturatu ginen, baina pentsatzen dugu horrela izan behar badu ez duela zentzurik soka-dantza dantzatzeak duen sinbolismoarekin. Bestalde, soka-dantza bukatzean zegoenean enteratu ginen Abadiñoako Pedrosa zinegotzia ETAK hil egin zutela. Gaur antzeko egoeran gaude eta gainera zinegotzi batzuek eskoltarekin dabilta. Soka-dantzak, udalaren eta herritarren artean dagoen elkatasuna adierazi nahi du, baina momentu honetan ez dira horrelako baldintzak ematen. Horregatik ez dugu parte hartuko eta inork ez dezala pentsa tradizioaren aurka gaudenik.”

Arrate Izagirre andreak (EH): “Nik esango dizut Jose Luis nire erabakia zergatik izan zen. Zuk oso argi azaldu duzu, nolabait soka-dantza hori herriaren eta jendearen arteko harremanak lotzen dituen dela. Ni ez negoen prest neri agurra ukatzen didan pertsona bati eskua emateko eta are gutxiago bere bizkartzainak niregan egiten duen presioa jasateko. Nik horren aurrean, ez diot sekula eskurik emango. Aurten zoritxarrez, beste egoera bategatik ez naiz irtengo, baina irtengo banintz berdin jarraituko nuke.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Hori horrela bada ez du inolako zentzurik soka-dantzak.”

Arrate Izagirre andreak (EH): “Nik nire etxe barruan jasan izan behar dut, “asesina” bat naizela esatea. Nik ez dut inor hil eta nire asmotan ere ez dago inor hiltzea. Horrelako pertsona bati ezin diot inoiz eskurik eman.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera gaueko bederatzia eta hamabostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta ziurtatu dut.